

Josu Arenaza Lekerikabeaskoa (1930-2012) euskaltzain urgazlearen oroitzapenean

KINTANA, Xabier
Euskaltzaindiko idazkaria

Gipuzkoako ahaldun nagusi jauna,
Euskaltzain oso, urgazle eta laguntzaileok,
Jose Luis Alvarez Enparantzaren, Karmele Esnalen eta Josu Arenazaren se-
nideok, eta honaino hurbildu zareten jaun-andre eta adiskideok,
Agur guztioi.

Hasi baino lehen, zilegi bekit bihotzez eskerrak ematea Josu Arenaza eus-
kaltzain urgazle izandakoaren senideei, batez ere haren alargun Gotzone
Alvarez Artetxe andreari, eta bien seme-alaba Libe, Ander, Joseba eta, be-
reziki, Sabini, zuen senar eta aita izandakoaren bizi-datu jakingarri eta aipa-
garrienak biltzeko, guztiok eskaini didazuen laguntza handiagatik. Era be-
rean, bihoazkie nire eskerrak Euskaltzaindiko bibliotekari Pruden Garziari,
eta Josuren lagun mina izandako Txomin Saratxagari ere, guztiok emanda-
ko datu baliotsuengatik. Benetan aitor dut, neure bakarrean, zuen lagun-
tzarik gabe, neurez ezingo nukeela bete eginkizun hau.

Etxekoak, jaiotza, ikasketak eta bizibidea

Josu Arenaza Lekerikabeaskoa 1930eko maiatzaren 23an jaio zen, Bil-
bon. Ama, Donata izenekoa, Nabarnizko alaba zen. Aita, aldiz, arabarra
zuen, Maeztun jaioa, eta Esteban zeritzon. Senar-emazteok seme bi izan
zituzten: Jose Luis, nagusia, eta Josu, berau apur bat gazteagoa.

Euskera. 2012, 57, 1-2. 421-434. Bilbo
ISSN 0210-1564

Umezaroan, gerra denboran bereziki, Nabarnizen bizi izan ziren, amaren jaioterrian, hain zuzen, gaur ere Bizkaiko leku euskaldunenetako batean. Haraxe joan behar izan zuten, Bilboko bonbardaketetatik ihesi, estuasun handian. Bertatik ikusi zuen, urruntasunean, *Condor* legioaren aleman hegazkinen bonbek zelan erraustu zuten Gernika 1937ko apirilaren 26an. Haurrak orduan zazpi urte besterik ez zituen arren, triskantza hori sakonean gelditu zitzaion. Etxeko euskal ingurune jatorrak eta jada txikitari bizi izandako tragedia giroak ondo markatuko zuten bera bitzita osoan.

Ama txikitandik euskaldun peto-petoa baldin bazen, aita ere, erabateko abertzalea izan zuen, eta bere seme-alaben euskalduntasunaz kezkatua gainera. Esteban Arabako nekazaritza girotik Bilbora etorria zen, *Euskalduna* ontziolara lanera. Geroago senar-emazteek taberna bat ireki zuten Bilboko San Mamés kalean (euskaraz Santi Mami), *Bar Esteban* zeritzona, Franco-ren garaian batzar klandestino ugariaren bilgune izandakoa.

Josu Arenazak lehen hezkuntza Aita Eskolapioen Bilboko ikastetxean jaso zuen. Zinez eskertzekoa zen, eta are gehiago diktaduraren garai hartan, eskolapioetako batzuk, ahal zuten neurrian behintzat, ikasleengan ereiten saiatzen ziren euskal sena. Izan ere, asignatura eta errezu-orduen artean, aldizka bertoko hizkuntza eta kulturari buruz nolabaiteko informazioa ere ematen zuten, orduko eskola nazionaletan erabat ukatua.

Ikasten segitzeko, Francoren peko Euskal Herri hartan unibertsitaterik ez eta, Valladolideraino joan behar izan zuen, medikuntza egitera, eta bertan Pediatrian espezializatu zen, ondoren, praktikak-eta Basurtuko Ospitalean burutzeko. Bere lanbideko ohiko jarduna Mungian egin zuen, Artetxeren fabrikako enpresa-mediku gisa. Era berean, Bilbon aritu zen, pediatra, bere kontsulta pribatuan, bai eta *Igualatorio Médico Quirúrgico*-ko kliniketan ere. Haurrekiko tratuan oso gizon atsegin eta umezale gisa nabarmendu zen, eta bere kontsultan beti egoten ei zen beirazko pote handi bat, karameluz eta gozokiz betea, txikitari haren bezero izandakoek ongi gogoratzen dutenez.

Era berean, pertsona nagusiekin ere tratu eskuzabal eta gizatiarra erabili zuen beti, orori ahal zuen guztian laguntza emanez, nork zelako ideologia zuen kontuan izan gabe.

Francoren zoritxarreko oroitzapenaren itzal jada luzeegia

Gerra ondoko historia gogoratzean, ez dira ahanztekoak, jakina, Francoren garaiko zapalkuntza eta orduko polizia politikoaren errepresio nazional larriak, ez eta horiek gurera ekarritako ondorio tamalgarriak ere.

Diktadura latz haren burua duela ia hogeita hamazortzi urte tragatu zen, baina hala eta guztiz ere, badira oraindik Francoren garaiko errepresio hura ahoan behin eta berriro darabiltenak, orduan abertzaletasunaren alde ezer ezin egin zitekeela argudiatuz. Gorago esan dudanez, egia da, bai, gure jendeak zapalkuntza beldurgarria jasan behar izan zuela, baina, era berean, ez da gezurra urte beltz haietan ere, gerran armen pean garaituen artean bazi-rela hargatik inola ere konbentziturik ez zeudenak. Orduan ere batzuek beren beldurkeria, aitorrezineko desinteresa edota euskal gaietarako arduragabekeriaren erru osoa, Ferrolekoari lepora jaurtitzen ziotenean, batzuk halere, ez zeuden gelditi. Are gehiago, erdal ofizialtasunaren kontra joanda, holako abertzaleek, txarrenean, etxean, lagun artean eta ezkutuan behintzat, gure hizkuntza, kultura eta izaeraren alde borrokan jarraitzeko adorea izan zuten, seme-alabei bertoko mintzaira eta kultura-balioak irakatsiz, hurrengo belaunaldiei eskubide nazionalen bandera pasatzeko.

Euskal nortasunaren alde

Euskara eta euskaldunontzat garai zailak izan ziren arren, Josu Arenazak bere jendearen balioen alde jokatzeko jakin zuen gaztetandik, berehala erakutsiko dugunez.

Garai bateko folklokeria-salaketak gorabehera, gaur egun edozeinek dakusa zer nolako garrantzia daukan kirol nazionala bultzatzeak herri-nortasuna agertu eta sendotzeko orduan, euskal selekzioa oraindik oztopatzen segitzen dutenengandik hasi eta *La Roja*-ren aldeko laguntza mediatiko osoarekin berori bultzatzen dutenekin amaituz.

Kontua da orduan euskal kirol, musika eta dantza erakustaldiak oso bakanak izaten zirela, eta, erabat galaraziak ez zirenean, maiz behintzat ozto-

patuak bai. Halere, zenbaitzuk holako saioak aupatzen ahalegintzen ziren. Eta horien artean Josu Arenaza gaztea zebilen, 60ko hamarkadan, eta buru-belarri ari zen Mungia Txirrindularitza Elkartean, antolatzaile eta mediku lanetan batez ere. Funcor ekipo ospe handikoaren zale-taldearekin ere ibili zen bera European zehar, geroago profesional bikainak izango ziren Uriona, Gabika eta Uribezubia txirrindularien ondoan. Azpimarratzekoa da Balendin Urionarekin zuen adiskidetasun handia. Haren heriotza 1967an, Sabadellen (Katalunian) lasterketa batean istripuz gertatua, kolpe latza izan zen harentzat eta haren etxeko guztientzat.

Baina interes eta ardura guztien aurretik, bazuen Josu Arenazak bat, bereziki sakona: euskara. Gaur egun irudi luke abertzale izateak aldean berez euskaltzaletasuna dakarrela. Hala balitz hobe, baina begi-belarriak dauzkan edozeinek argi ikus eta entzun dezake, zoritxarrez, lotura hori ez dela hain automatikoa izaten, eta gurean oraindik askotxo dauzkagula, politika-kargudunak barne, hor zeresan handia ematen dutenak, beren bistako erdaltzaletasun ezinago ageriagatik. Arazo hori, gainera, are nabarmenagoa zen duela berrogei urte, non eta Bizkaiko hiriburuan, orduan euskaltasunaren froga nagusitzat euskal deiturak erdaraz aldarrikatzen ziren tokian.

Orduko abertzale askoren ilusioak Irlandako independentzia lortu berriari adi zeuden oraindik, bertako ingelestasun gero eta handiagoa gorabehera. Han garrantzitsuena erlijio katolikoa bazen, gurean, odolarekin batera, azaleko ezaugarriak balioesten ziren gehien: deiturak, berton jaioa izatea, ikurrinaren koloreak, txapela, musika, dantzak, kantak... hizkuntza maiz bazterrean utzirik. Baina naziotasunaren muina, berorren ezaugarri nagusia hizkuntza eta horri loturiko kultura zirela uste zutenak ere baziren, eta Mokoroak, Ibiñagabeitiak, Orixek, Txillardegik, Arestik edota Mitxelenak aldarrikaturiko ebidentzia horri atxikitzen ziotenen artean bazen J. Arenaza ere. Eta horrek, gainera, inoiz buruhauste ez gutxi ekarri zizkion gure medikuari, bai etsaien eta bai, tamalez, laguneren artean ere.

Josu, berez, ez zen hizkuntzaren teorikoa, haren erabilera eta iraupenaren aldeko ekintzaile nekaezina baizik, herriko eta ahozko tradizioaren aldeko sutua. Alde horretatik, ezaguna da bere ideiekin zeukan konpromiso publikoa. Gure kultura bultzatzeko bide horretan, inoiz herri-antzerkian parte

hartu zuen, hasieran Mungian eta geroago Bakion. Euskal aldizkarietan idazten ere aritu zen: *Goiz Argin*, *Anaitasunan*, *Aguren*, *Zeren* eta *Zeruko Argian*. Guztietan bere kezka nagusiak adierazten zituen, hots, aberriaren eta euskararen iraupena.

Josu euskaltzaleak lehenbiziko unetik argi ulertu zuen zelako garrantzia izan beharko zuten ikastolek gure hizkuntza nazionala berreskuratzeko orduan. Logika horretatik abiatu, 1970ean, bera Begoñazpiko Ikastolaren sortzaileetako bat izan zen, begi-bihotzak irakaskuntzan eta gure hizkuntza-aren etorkizunean jarrita.

Josu Arenaza euskaltzain urgazle

Euskaltzaindiak, 1956an Arantzazun egindako bilera baten ondoren, *Euskera* agerkaria berriz argitaratzen hasteko baimena lortu zuen. Gerra ondoko euskal gizartearen panorama hartan jada euskaltzale berriak nabarmentzen hasiak ziren. Akademiak, 1957an, ekintzaileok aintzat hartu eta Euskaltzaindia eraberritzeko asmoaren barruan, horiek euskaltzain izendatu zituen. Horietako bat Josu Arenaza mediku idazlea izan zen. Ez zen bakarra izan baina. Berarekin batera, Gabriel Aresti poeta, Alfonso Irigoien euskalaria, Justo Mari Mokoroa fraseologoa, Santiago Onaindia idazlea, Jose Luis Alvarez Enparantza «Txillardegi» eleberrigilea eta Antonio Zavala bertso-biltzaile eta idazlea ere hautatu zituen gure hizkuntza-aren Akademiak.

Josu Arenaza, politikan

Edozein naziok, historian bizirik irauteko, noraezekoa du bere burua gobernatu ahal izatea, erantzukizun hori besteren eskuetan utzi gabe. Hizkuntza eta kultura nazionalak, bistan denez, ezin elika ez bultzatu daitezke herri-aginte eta botere publikoak horien alde ez badaude. Eta frankismoaren garai luzean Euskal Herriak kanpokoaren desgobernua pairatu behar izan zuen. Horri aurre egiteko, Josu Arenazak, abertzaletasunaren esparruan, bertoko balioak suspertzen jardun zuen. Horrela, PNV-EAJ alderdi

politikoaren barruan sartu eta hor erantzukizun handiko karguetara heldu zen. Luzaro Bizkai Buru Batzarreko kidea izan zen. Alderdiaren barruan beti abertzale kontsekuente izan nahirik, nazioaren hizkuntzak daukan garrantzi berezia azpimarratu zuen, eta, horregatik, inoiz kide ezeroso izateraino iritsi zen, alderdikide epelago eta axolagabe batzuen begietarako behintzat. Garai hartan, halaber, bere joera abertzaleak espetxealdia pairarazi zion, norekin eta Txillardegirekin batera. Eta hura, noski, ez zen kasualitatea izan.

Anekdotan moduan, esan dezagun 1968an beraren bitartez afiliatu zela EAJra ordura arte Javier Arzallus deitzen zen jaun bat, geroago bere alderdian gorengo postuetaraino igoko zena.

Dena den, denboraren joan-etorriaz, 1980.etik aurrera, EAJ alderdiak boterea berreskuratu zuenetik, hain zuzen, hasierako eta bere bihotzeko alderditik urrunduz joan zen Josu, autonomiatik haratago, bere nazioarentzat erabateko independentzia osoaren bila. Ez zuen, beraz, lehenagoko urte askotako militantzia luzeaz baliatu nahi izan, bere alderdiaren barruan postu, kargu politiko edo aginte handiagorik eskuratzeko. Alderantziz, batzuen ustez, «muturreko» jarrera independentista hartu zuela eta, azkenean alderditik kanporatu zuten. Harrezkero, gaztaroko tradizio jeltzaletik helduaroko soberanismoerantz eboluzionatu eta ezker abertzaletasunera hurbildu zen, baina ez zuen inoiz bertan militatu. Bere bizitza osoan erabat pertsona bakezalea izan zen, eta, horrela, ekimen askotan laguntzaile gisa jardun zuen; esaterako, euskal preso politikoen osasun-eskubideen aldeko mediku taldean. Dena den, ez dagokigu hor balioespenik egitea, Euskaltzaindiaren egitekoa ez baita politikaren barrutian sartzea, berorren eraginak gure hizkuntzari ukitzen ez dion neurrian behintzat.

Euskal sindikatuaren bultzatzaile

Josu Arenazak euskal hizkuntza, kultura eta politikaren alde eginiko lana jakina eta ezaguna bada ere, ez da, segur aski, gauza bera gertatzen beste arlo batean, hots, sindikalismoan. Katalunian eta Galizian ez bezala, Euskal Herriak aspaldidanik sindikatu nazional propioak izan ditu. Lehenbizikoa,

Solidaridad de Obreros Vascos zeritzona, jada 1911n sortu zen, geroago STV-ELA izena hartu eta gaur Eusko Langileen Alkartasuna bilakatu da. Horren ondoan, 1974an, LAB deritzona ere antolatu zen. Gaur Euskal Herriko lehen eta hirugarren indar sindikalak, hurrenez hurren.

ELA, matxinada militarren ondoren, luzaro legez kanpkoa izan arren, frankismo garaian sindikatu klandestino honek garatzen eta hazten segitu zuen ezkutuan, eta, gerra osteko susperraldian, Josu Arenaza eta Jon Idigoras izan zituen bultzatzaile, besteak beste. Ibilbide horrek ederto erakusten du Josu noraino zegoen kezkatu euskal langileriaren interesen alde, beti kristau humanismoaren iturritik edanda, bai eta nolako zolitasunaz ikusi zuen euskaldunon artean bertoko sindikatu propioa izatearen garrantzia ere.

Askatasunik ezaren ondoko susmo-giroa

Garai hartan Francoren diktadurapean geunden herritar gehienok, eta adierazteko askatasunik ez. Giro hark, jakina, ez zigun uzten argi azaltzen gutariko bakoitzak politikan zer eta nola pentsatzen genuen, erregimenaren aurkako ideia nazional eta politikoak erabateko gardentasunaz adieraztea debekaturik zegoelako. Ez da harrigarria, beraz, horrexegatik elkarrenganako errezeloak ere sortzea, inoiz euskal alorrean lagun agertu berri batzuen atzean aitorrezineko politika espainolista ez ote zen ezkututzen susmatzea, eta gure herriaren balioen ageriko defentsan batzuen ardi-larruaren azpian agian espainolismo ezkutua erdaltzaletasuna gordetzen ote zelako kezka ere. Eta orduko giroan, hori guztiori, neurri batez, ulertzekoa zen, inoiz horrelako kasuak ere halaxe agertzen ziren eta.

Edonola ere den, batzuen eta besteen azaleko ezberdintasun horien atzean, garai hartan euskararen alde genbiltzan guztiok antzeko kezka ginderabiltzan: Euskal Herriarenganako maitasunak, gure nazioa berriro jaikiarazteko gogoak, gure hizkuntza berbiztu eta bertoko kultura hauspotzeko nahiak. Eta ahalegin horietan, zalantzarik ez, Josu Arenazak aipamen berezia merezi du.

Euskararen sokatiran

Hizkuntzari gertuagotik begiratuz gero, eta mintzairaren batasunerako ereduari gagozkiola, ondo gogoan izatekoak dira, Josu Arenazak behin eta berriro azpimarratu zituen puntu nagusi bi: euskararen jatorrasuna, batetik, eta hizkuntzaren batasunean bizkaierak, mendebaldeko euskarak, eduki behar zuen partaidetza handiagoa, bestetik.

Hor, nolabait, sehaska izan zuen Nabarnizko herriaren eragina azpimarra genezake, gorago esan dudanez, gaur ere gure Jaurerriko herririk euskaldunenetako bat da eta. Bertan ezagutu zuen Josuk gaur, zoritxarrez, hain erraz ezin topa daitekeen euskal lagunarte jatorra, naturaz, bizipenez eta euskalduntasunez asebeta.

Ez da harritzekoa, hortaz, hizkuntzaren geroari zegokionez, Josu Arenaza, txikitan hain euskal giro eder eta zoragarrian bizi izandakoa, Sabino Arnaren iritziekin bat etorri eta Nikolas Ormaetxea «Orixe»-ren aldera oso lerraturik egotea. Hori dela eta, sasoi batean, etorkizunean ere, euskara nolabaiteko bukolismo arkadiarrean gorde gura zuen betiko, industrializazioaren eta globalizazioaren erdal aldabideetatik babesturik.

Horrexegatik, gainerako euskalki mintzatu eta bizien artean, berearen garrantzia nabarmendu nahi zuen, haren hiztun kopuru handia eta literatur emaitzak gogoan izanda. Batasuna erdialdeko euskalkien inguruan eratzen ari zela ikusita, Bizkai aldeko euskararen lexiko eta sintaxi arloko berezitasun aberasgarriak gorai patzen zituen berak. Beldur zen, hizkuntza literarioa osatzean, den-dena gipuzkeraren aldeko aukera hutsa ez ote zen izango, mendebaldeko eta ekialdeko beste euskalki osagarrien kaltean. Haren kezken hotsak ez zituen bat-bateko haizeak eraman, eta, zorionez, merezi zuten oihartzuna ere izan dutela esan genezake. Berak azpimarraturiko puntu ez gutxi, gaur egun Euskaltzaindiaren hiztegi akademikoan zein gramatikan jasorik aurkitzen ditugu jada, euskaldun guztion hizkuntza literarioaren osagarri.

Herri-hizkerez interesaturik zegoen, bai, baina, aldi berean, Josu Arenazak argi zekusan euskarak, munduko beste edozein kultur hizkuntzak bezala, beharrezkoa zuela gutxienezko batasuna, euskalki bakoitzaren baitan

hasita. Alde horretatik, bizkaiera bakarraren alde zegoen bera, ez tokian tokiko mila bizkaiera ezberdinen fabore, eta ez zituen bultzatu euskaldunok elkarrekin ondo ulertzera ez garamatzaten aldaki azpidialektal bitxiak. Euskalkiek, haren ustez, aire garbia eta zuku freskoa eman ziezaioketen eredu batuari, euskara estandarra osatu eta aberasteko. Hots, bera ez zen inondik ere, azpieskalki bitxi, zatikatu eta idatziz sekula erabili gabeak edonola papereratzearen joerakoa, herrixkaz herrixkako zoro-txapelketa anarkikoan, aspaldion, azken orduko goi-argitu batzuek euskara nazionalaren kontra, egin nahi duten bezala.

Jakina, bere garaiko euskaltzale gehienek antzera, Josu Arenaza hizkuntza kontuan garbizalea zen, eta hori ere ongi ulertu beharra dago. Alde batetik, frankismoak bere oztopo eta debekaldiekin luzaro ez zion euskal gizarteari aukerarik eman euskarari buruzko irizpideak lasai eztabaidatu eta araubidez normaltzeko. Bestetik, denbora hartako eskolak eta erdal komunikabide nagusiek gure hizkuntza, gaztelaniapeko errapetik bizi omen zen dialekto barregarritzat aurkezten ziguten. Gainera, euskaraz tutik ez zekien Txomin del Regato bezalako pertsonaien ahoan egundoko aldrebeskeriak plazaratzen ziren. Irakaskuntza osoa Espainia eta Frantziako erdara ofizial bakarretan ematen zelarik, sasoi batean ez zen gure artean ongi bereizten erdarakada hutsen (*blondo, errubio, kamarero, kamisa, kangreju, kebrado, kutxillo, moreno, obrero, tailer...*) eta nazioarteko lexiko unibertsala osatzen duten maila goragoko hitzen artean (*aritmetika, biologia, disko, mikroskopia, musika, nuklear, petrolio, semantika, trigonometria, txokolate...*).

Ondorioz, frantsesez eta gaztelaniaz esaten ziren hitz guztiak beren ondare eta altxor garbi eta partikularrekoak zirela sinetsarazten ziguten, eta guk ez genuela esparru horretara muturra sartzeko inolako eskubiderik. Baina, egia esan, ezjakintasunez, edo maltzurkeriaz, ondo ezkututzen ziguten berek ere berba horiek kanpotik, latin klasikotik edo grezieratik jasoak zituztela, ingeles, aleman, errusiera, arabiera eta munduko kultur hizkuntza gehienek antzera, hain zuzen. Orduan, zertara zetorren, mundu guztiak ur bila jotzen zuen nazioarteko iturri hartara edatera euskaldunoi hurbiltzen galaraztea, Unamunok egiten zuenez?

Ulertzekoa da, noski, orduko egoera penagarri hartan, erdal txantxa eta iseka artean Josu Arenaza, beste askoren antzera, erdalkeria horiekin bat ez etortzea eta horien aurka protestatzea.

Euskaltzaindia batasunaren inguruan

Bestetik, orduko politika-askatasunik ezak ez zigun euskaldunoi uzten gerraurreko iritzi jada zaharkitu batzuk berrikusten, ez eta eztabaidatzeko era publikorik ematen ere, haiek gainditu ahal izateko. Halere, garai bereko katakunba-giro erdiklandestinoan, gure hizkuntza normaltzeko helburuaz, garbizalekeria-mordoilokeria nahas-mahas hartan Euskaltzaindiak, euskal hitzak zeintzuk ziren argitu nahi izan zuen. Horretarako, L. Mitxelenak eta L. Villasante bezalako euskaltzainek eraginda, arau garrantzitsua eman zuen gure Akademiak 1959ko erabakiaren bitartez. Ondorioz, *abade*, *barkatu*, *eliza*, *errege*, *errota*, *eskola*, *gramatika*, *filosofia*, *gaztelu*, *lege*, *matematika*, *politika*, *porru* edo *telefono* bezalako berba mailegatu zaharrak edota nazioartekoak, behin euskal grafiaza egokituz gero, euskarazkotzat ere har zitezkeela adierazi zuen argi eta garbi Euskaltzaindiak.

Erabaki horrek kultur hizkuntza modernoa izateko ateak ireki zizkion gure hizkuntzari, eta nazioartekotasunaren aire berrien arnasa ere elkarri, baina, aldi berean, arau hori txarto aditzeak, hobeki azaltzeko zailtasunak eta, orduko komunikabideen mugekin, jendeari gauzak ezin argitzeak denboraz gaizki-ulertu larriak sorrarazi zituzten. Ondorioz, pertsona askok pentsatu zuten kanpoko edozein berba, nazioarteko mailakoa zein espainol edo frantseskada hutsa, behin euskal grafiaz jantzi eta, hobeki esan, mozorrotuz gero, horrela, besterik gabe, euskal hitz bihur zitekeela, eta Euskaltzaindiak halako erdarakadak, gainera, bedeinkatu egiten zituela. Baina hori ez zen inoiz akademiaren asmoa izan. Halere, uste oker horretan oinarrituta, bide horretatik hasi zitzaizkigun sartzen, aspaldion, adibidez, *ejertzito*, *kotxe*, *tailer*, *pintxopote* edo *azula* lako erdarakada gordin bezain premiagabeak, euskal sen gutxiko eta are asmamen urriagoko idazleek bultzatuak.

Gutziz normala zenez, Arenazak, aipaturiko barbarismo horien orde, gure ondarezko hitz jatorragoak hobesten zituen. Bestetik, euskaldunon gai-

netik erdal menpekotasun koloniala uxatzeko, euskarak ere beste edozein hizkuntzak bezala, bere erroetatik hitz berriak sortzeko daukan eskubidea bera aldarrikatzen zuen.

Eta ertz batetik bestera alde zabala den arren, hor ere badakusagu aurre-pauso handiak egin direla azken aldian. Gaurko liburu zein aldizkariei begirada bat egitea besterik ez dago, ongi konturatzeko, azken mende erdi honetan, zenbat eta zenbat hitz berri asmatu diren euskaraz: *atxikipen*, *aurrekontu*, *egitasmu*, *bizikidetz*a, *elkarlana*, *harpidetz*a, *hitzordua*, *hizkuntzalari-tza*, *kokaþena*, *maiztasuna*, ... geure berba eta erroekin ondo osatuak. Bestetik, hitz internazionaleri doakienez ere, gauzak argituz joan dira, eta garai bateko espainolkada gordinen orde, gero eta joera handiagoa dago nazioarteko erak hobesteko, hots, *Antartika*, *brodatu*, *estatistika*, *gimnastika*, *hierarkia*, *immunologia*, *krokodilo*, *orquestra* edo *partida* adibidez, ingeles, frantses eta alemanaren antzera, hain zuzen.

Josu Arenazaren kritikak, batasunerako akuilu

Ongi pentsatzen hasiz gero behintzat, geure ideia, jarrera eta aukera personalak ez bezalako iritziak ez genituzke beti arerioen eztenkadatzat hartu behar. Nork bere usteak azaldu eta horiei eusteko daukan ukaezineko eskubideaz gainera, bada hor besterik ere. Inorengandik jatoriko kritikak gure gogoeta propioak birpentsatzeko argudio onak ere izan daitezke. Batzuetan horiek aldatzeko edo ñabarduraz zehazteko; beste batzuetan gureak arrazoi hobeekin argitzeko, edota hasierakoak beren horretan sendotzeko. Azken buruan, eta txarrean ere, gurekin bat ez datozen lagunen arrazoiak errealitatea bestelako ikuspuntuetatik ulertzera laguntzen digutelako.

Hori gertatu zen, adibidez, XIX. mendeko etsenplu sonatu bat gogoratze-ko, *mutatis mutandi*, Charles Darwin ingeles biologo ospetsuaren obrarekin (*On the origin of species*, 1859). Haren garaian bazen Frantzian entomologo bat, Jean-Henri Fabre, intsektuei buruz argitaratuak zituen ikerketa bikain eta zehatzengatik oso ezaguna, (*Souvenirs entomologiques* 1878). Halere, Darwinek bere *Espezieen Jatorria* liburu kaleratu zuenean, han azalduko teorietan ez zuten frantses maisua asebetarik utzi, eta hainbat eskutitz bidali

zizkion ingeles ikertzaileari eboluzioari buruzko bere oztopo biologikoak planteatzeko.

Darwinek gutun guztiak jaso eta, aldi berean, eskertu ere egin zizkion; bihotz-bihotzez gainera. Kritika horiek kontuan izanda, bere liburuaren hurrengo edizio eta eranskinetan eboluzioak bere bidean darabiltzan baliabideak, egiten dituen sigi-sagako urratsak eta itxurazko kontraesanak azaltzen saiatu zen, bere hasierako teoria hobeki argitu, osatu eta biribildu arte.

Eta, gurean ere, aldatu beharrekoak aldatuz, frantses entomologoaren kritika gogor baina zintzo haiek biologo ingelesari gauzak hobeki pentsarazi zizkieten bezala, era berean, Josu Arenazak euskara batuari eginiko kritikek ere behartu egin gintuzten batasunaren aldeko gauzak sakonago aztertzerara, geure argudioen alde ilunak eta adibide desegokiak hobeki azaltzera, izandako okerrak zuzentzera eta literaturarako euskara batuaren onurak argiago erakustera ere, hura guztia zer zen, zergatik gertatzen zen eta zertarako zetorren jendeak hobeki uler zezan.

Ez nuke aipatzeke utzi nahi, azkenik, Josu Arenazak, batasunerako bidean, antzinako autore eta liburu klasikoez gainera, herri-euskara ere maiz azpimarratzen zuela. Beraren ustez, euskal literatura zahar eta klasikoa bai, ondo zegoen, baina berak zioenez, horrek ez zigun ahantzarazi behar jende jatorraren egungo euskara mintzatua ere, neurri handiz etorkizuneko mintzairaren oinarria, bere esapide, piper eta gatz berezi-bereziekin. Gomendio hori ere, zorionez, ondo kontuan izan du Euskaltzaindiak.

Neurri batean, euskararen batasunerako errezelo horrek idatzarazi zion L. Villasanteri bere *Hacia la lengua literaria común* (1970), dibulgazio liburu argigarria. Obra horretan munduko beste hizkuntza batzuen batasun-prozesuak azaltzen zituen frantziskotarrak, euskara estandarerraino iristeko bidearen historia kontatzen eta prentsan agerturiko zalantzak argitzen saiatzen zen. Eta hori ere, nolabait, Josu bezalako kritikariei zor zaiela aitortu behar. Horregatik, euskararen batasuna zela eta, elkarrekin eztabaidak eta inoiz borroka latzak ere izan genituela egia bada ere, horrek ez du esan nahi, aldi berean, gutariko bakoitzak bestearen argudioak entzun eta haren arrazoiak ere kontuan hartzen ez zituenik. Alde horretatik, gure hizkuntzaren batasuna aldeko eta aurkakoen elkarlanaren fruitu eta ondorioa izan da.

Azken hitzak

Tamalez, orain ezin gogora dezaket Josu noiz ikusi nuen azken aldiz. Jakin, badakit ekitaldi publikoren batean izan zela, agian ospakizunen batean edota, beharbada, bilera politiko edo kulturalen baten aurkezpenean. Nolanahi ere den, ongi oroitzen naiz, batak bestea modu onean eta gizabidez agurtu genuela orduan, aurretik urte askotan elkar ikusi gabe egonda gero. Lehenagoko haserrealdi eta tira-bira zaharrak, ordurako, jada gaindituak ziren, eta ahaztuak ere bai.

Bere azken urteetan *Euskaldunon Egunkariaren* sustatzaile ibili zen, besteak beste. Izan ere, beti zegoen prest euskararen aldeko edozein ekimen edo erakunderi laguntza emateko, *AEK*, *Korrika* edo *Kontseiluari* adibidez.

Aspaldiko urteotan gaixorik egon ondoren, iaz, 2012ko irailaren 29an, zendu zen, laurogeita bi urte zituela. Bere senide, adiskide, lagun eta gogai-de ugariak azken agurra egin zioten, Bizkaiko zaindariaren Begoñako basilikan bere arimaren alde eskaini zitzaion mezan. Horien artean, nik ere neure errespetua adierazi gura izan nion mirespen osoaz, bere bizitzaren eguneroko jardunean bere idealak duintasunez erakusten eta praktikatzen kontsekuenteki ahalegindu zen gizon langile, euskaltzale zintzo eta egiazko abertzale horri.

Nabarniz herritxoaren gainean, iparraldean, Iluntzar mendia altxatzen da, Urdaibaiko haranari eta Gernikari begira. Haren tontorrean Josu Arenazaren senideek pago bat landatu, eta horren inguruan zabaldu zituzten beren aitaren erraustak. Panteoi ezin ederragoan datza orain Josu, haurtzaroko eta bihotzeko herriari begira, arbasoen amalurraren altzoan, zerua eta lurra, goiko hodeien eta beheko lainoen urdintasunek elkar besarkatzen duten tokian. Pozarren eta bakean, zalantzarik gabe.

* * *

Para terminar esta breve exposición de la vida y obra del médico y académico vizcaíno Josu Arenaza Lekerikabeaskoa, quiero subrayar el testimonio desinteresado, práctico y vital en pro del euskera que nos ofreció generosamente a lo largo de toda su vida, en un tiempo desgraciadamente no

demasiado pródigo en entusiastas de nuestra lengua, y expresarle mi respeto y admiración.

La dedicación y el amor demostrados hacia nuestro idioma le valió ser nombrado en 1957 miembro correspondiente de Euskaltzaindia, la Academia de la Lengua Vasca. Dicho honor, lo compartió aquel año con personalidades tan excepcionales como el novelista Jose Luis Alvarez Enparantza «Txillardegi», el poeta Gabriel Aresti, el filólogo Alfonso Irigoien, el escritor Santiago Onaindia, el fraseólogo Justo Mari Mokoroa, y el gran escritor y recopilador de la obra de nuestros bertsolaris, Antonio Zavala, entre otros.

Su pasión vasquista también le llevó a visitar la cárcel, y no precisamente por razones de inspección médico-sanitaria, en compañía, –significativa casualidad– de J. L. Alvarez Enparantza, homenajeadó igualmente en este día. Supo defender con su ejemplo unos valores vascos fundamentales, así como transmitírselos a sus hijos, cuando, con demasiada frecuencia, los dichos y la teoría de algunos de nuestros más notables hombres públicos no siempre coincidían con la práctica de sus hechos. También se destacó por su impulso entusiasta a las ikastolas, por su decidida colaboración y ayuda a las revistas y publicaciones vascas, como *Zeruko Argia*, *Goiz Argi*, *Anaitasuna*, *Agur*, *Zer...* así como a *Euskaldunon Egunkaria*. Su interés y preocupación por el futuro de la lengua hizo que buena parte de sus críticas sobre el idioma vasco unificado fueran tenidas en cuenta, para enriquecerlo con otras aportaciones dialectales, entre las que no faltaban las de su Bizkaia natal. Su vida puede considerarse realmente ejemplar y un modelo para las futuras generaciones de nuestro país.

Sus cenizas fueron esparcidas por su familia en la cima del monte Iluntzar de Nabarniz, junto a un haya plantada allí por sus hijos en su memoria. Digno panteón, de serena belleza, sosiego y paz, para un hombre que vivió siempre bien arraigado en su tierra madre.